



ESKOLAKO JOLASTOKIA

Kaixo, lagunok.
Nik Fono dut izena
eta hona etorri naiz
eskuzabalak zareten ikustera.

Eskuzabalak al zarete?
Partekatzen al duzue daukazuena?
Jolastokira etorri naiz,
zer egiten duzuen ikustera.

«Egun on, Platano jauna.
Zer moduz zaude?
Banatzen al zaituzte umeek?
Nola tratatzen zaituzte?».

«Ni oso pozik egoten naiz
motxilaren barruan,
baina triste jartzen naiz
ateratzen nautenean jolas-orduan».

Ikusten nautenean, esaten dute:
"Kaka zaharra! Berriro fruta al dago?
Nahi baduzu, hartu zuretzat.
Nik behintzat ez dut jango!».

«Norbaitek etxean ahazten duenean
bere hamaiketako, a,
besteek ematen al diote
daukatenaren zatitxo bat?».

(Sandwichak erantzuten du)

«Bigun-biguna naizenez,
eta banatzen erraza,
batzuetan partekatu egiten naute
eta hori oso ederra da».

«Tartean daukadana gustatzen
bazaie,
ziztu bizian jaten naute,
baina, gustatzen ez bazaie,
partekatu egiten naute».

(Palmera mintzo da)

«Nire esperientzia, ordea,
oso polita da:
atarian ikusten nautenean,
denak hurbiltzen dira nigana».

«Ekartzen nautenak poz-pozik
aritzen dira nire txokolatea jaten,
eta besteek zatitxo bat eskatu
arren,
ez naute sekula partekatzen».

(Fono mintzo da)

«Ume hauek ez dakite
eskuzabala izatea zer den.
Nahi ez dutena partekatzen dute,
eta gustatzen ez zaiena batere».

«Zuen laguntza behar dut,
paretan gauza bat jartzeko».
Eta margoen bila joan ziren,
mezu bat prestatzeko.

Hauxe idatzi zuten
eskolako jolastokian,
hizki handi-handiekin,
ondo ikusteko baita ere urrutian:

**Eskuzabala izatea ez da
gustatzen ez zaiguna
edo nahi ez duguna ematea,
baizik eta besteengan
pentsatzea
eta daukaguna partekatzea.**

